

## HISTORIA TXATALAK

## Parrokiako bitxikeriak



> Mikel Deunaren parrokiarekin lotutako bi datu bitxi ekarri nahi ditugu oraingoan atal honetara.

Batak bere handitasun edo tamainarekin du zerikusia. Berau ikustera etorri ohi diren turista asko liluratuta geratzen dira gure parrokiaren edertasunarekin, eta ez da gutxiagorako, izan ere, San Migel parrokia Gipuzkoako bosgarren elizarik handiena baita azaleran, 1.262m<sup>2</sup>-rekin. Handiena Donostiako Artzai Onaren eliza da (1.812m<sup>2</sup>), eta ondoren datoz bertako Santa Maria eliza (1.536m<sup>2</sup>), Tolosakoa (1.488m<sup>2</sup>) eta Segurakoa (1.363m<sup>2</sup>).

Beste "ranking" batean berriz, buru-buruan azaltzen da Oñatiko parrokia, izan ere, aldare nagusia altuen daukan estatu osoko eliza baita. Kondearen hilobia Errosarioko kaperan egon zen aurrena, baina aldare azpiko kripta eraiki ahal izateko jaso behar izan zuten aldare nagusiaren kota.

Bestalde, Oñatiko parrokia da klaustroa erreka gainean eraikita duen Espainiako eliza bakarra.

## Goribar

> Jerardo Elortza

**K**aleetik oso hurrean aurkitzen den baserri- nahiz industria-giroko auzo honek makina bat aldakuntza izan ditu historian zehar, izenez eta izanez. Erdi Aroan **Bolibar** zeritzan hasieran, **Boribar** geroago, eta **Goribar XVI**. mendetik aurrera. Mendebaldeko euskararen eremuan leku askotan agertzen den **bolu** (errota) gehi **ibar** berbetatik ei dator. Beraz, **Oialde** baino beheratxoago zegoen antzinako errota batetik etor daskioke izena auzoari. Beste askotan bezala, ola bihurtu zen hasierako bolu hura XVI. gizaldiaren amaieran. Auzoan bertan beste bat azaltzen zaigu, **Errota barri**, 1593ra orduko. Izen askoz modernoagoak ditugu **Casablanca**, 1850etik aurrera eta auzoaren zati bati dago-kiona; eta **Otadui zuhaiztia** 1960ko hamarkadan, arboleda eta handik beherako etxe-multzak bereganatzen dituen, Casablanca barne.

Goribarko olak, hainbat mendetan lanean jardun ondoren, birmoldaketa sakona izan zuen 1867 aldera, Aretxabaretako Bedoñatik etorritako **Kornelio Garai Zuazubiskarrek** pospolo-fabrika gisa aritzeko egokitu zuenean, Kale zaharreko Kurtzetxo ondoko presa zaharra eta malatua aprobetxatuz. Harrezkero, eta gorabehera batzuen

## AUZORIK AUZO

Oñatiko  
industriagune  
trinkoene  
tako bat  
bilakatu da  
Goribar

ondoren, **Garainekoa** izan da Oñatiko industriarik klasikoena, 1960ko hamarralditik aurrera kooperatibak indartzen hasi ziren arte behintzat. Edonola ere, ola zaharraren inguru horretan beste tailer eta lantegi asko eraiki ziren XIX. eta XX. mendetan zehar: besteak beste, **Arrazolane**ko zurrategia (kurtideria); **Mugartza**, **Ugarte** eta **Konpainiaren fundizioa**; **Loiola txokolate-fabrika**; **Santi Korkestegirena**; edota hasierako **Txintxurreta** eta **Ulma** hodi-fabrikak arboledan. Hartara Oñatiko industriagune trinkoetako bat bilakatu da Goribar.

Tamalez, industriak eraikitzeak beste baserri eta etxe interesgarri batzuk eraistea ekarri du. Adibidez, auzoari izena ematen zion **Goribar Haundi** baserri dotorea, edota **Ginea-Elortzarrek** Antzoko parean jasoarazitako **Aloña-alde** eta **Ibai-ondo** txalet-jauregitxo txanbelinak. Zutik dirau oraindik saihesbi-dearen ertzean **Goribargoiti** baserria, **Manuel Umerez** euskal idazlearen jaiotetxea. Badu Goribarrek ermita polita gaintxo batean: **Santa Katalina**, eta bere alboan egon zen 50en bat urtean parrokiatik kanpora egindako lehenengo **hilerria** XIX. gizaldian; eta **Ugartondo** baserria baino goratxoago kokatu zen **San Bartolomeren** baseliza, Belatxara inguruan, duela ehun bat urtera arte.

**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

**PAKITA**  
Altzariak

Berezaio Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

EL NALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA EN POTRATU, RIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA**  
Okindegia

Larriño buzoa, 44  
Tel.: 943 78 25 97  
Mug.: 688 630 754  
OÑATI

Bizirikongo egia: [www.irazola.com](http://www.irazola.com)